



Gipuzkoako Ur Kontsultazioa

UR KONTSUMOA

Ura gure bizitzan beharrezkoa den elementua da eta ez soilik edateko, beharrezkoa den garbitasuna eta gaixotasunak saihesteko ere.



Pentsa ezazu zure eguneroko ekintzetan eta osa ezazu ondoko taula:

Etxeke biztanleentzat ekintza komunak direnean, adibidez, garbigailua jarri edo platerak garbitu, ekintzaren litro kopurua etxeke biztanleen artean zatitu behar duzu. Esate baterako, garbigailu batek 200 litro gastatzen baditu eta etxean 4 bazarete, 50 litro jarri beharko zenituzke zure ur kontsumoko zerrendan.

EKINTZA
LITROAK:
ZENBAT:
GUZTIRA:



Zisterna
hustu
10



Edan-Janaria
prestatu
5



Bainu bat hartu
250



Garbigailua
100-200



Ontziak eskuz garbitu
eta iturria irekita
100

EKINTZA
LITROAK:
ZENBAT:
GUZTIRA:



Eskuak garbitu/
Iturria irekita
2/15



Ontzi garbigailua
20-30



Iturria irekita,
minuturo
12




5 minutuko
dutxa bat
50



Hortzak garbitu/
Iturria irekita
1/7

Orain erantzun ezazu



Zenbat gastatzen duzu eguneroko zure garbitasunean?

Eta, zenbat egunero zure etxean egiten diren garbiketak batuta?

Gutxiago gasta zenezake? Nola?

Zergatik uste duzu ura aurreztu behar dela? Zein arazo izan ditzakegu etorkizunean?

Bestalde, etxean gastatzen dugun ura UR KONTAGAILUA deitutako aparatu batetan erregistratuta geratzen da. Iker ezazu non dagoen zure etxekoa eta apunta itzazu bertan agertzen diren zenbakiak. Begira ezazu berriz hurrengo astean, zer dio? Zure etxeko ur gastua kalkulatzeko modua da. Ba al zenekien gastu honen arabera ordaintzen dela uraren agiria? Eska iezaiezu zure gurasoei erakusteko!



Gipuzkoako Ur Kontsultazioa

NOLA ERABILTZEN DUGU URA GURE ETXEETAN?



*Gurasoekin betetzeko
galdeketa*



Bai beti Batzuetan Inoiz ez

KOMUNEAN

1.	Hortzak, eskuak... garbitzean iturria isten al duzue?	0	1	2
2.	Hamar minutu baina gehiago behar al dituzue durtatzeko?	2	1	0
3.	Komunetik janaria botatzen al duzue?	2	1	0
4.	Etxeko bonbak ba al du karga erdiko aukerarik?	0	1	2

OHITURAK

5.	Botilako ura edaten al duzue?	2	1	0
6.	Etxeko iturriek ba al dute ura aurrezteko sistemarik?	0	1	2
7.	Ba al duzue etxean pisinarik?	2	1	0
8.	Autoa garbitzeko mangeraz egiten al duzue?	2	1	0

SUKALDEAN

9.	Labadora guztiz betetzen al duzue jarri aurretik?	0	1	2
10.	Platerak ontzi garbigailura sartu aurretik uretatik pasatzen al dituzue?			
	Ontziak eskuz garbitzean, txorrota zabalik izaten al duzue?	2	1	0
11.	Izoztutako janaria urtzeko ur txorrotaren azpian sartzen al duzue?	2	1	0
12.	Olio fregaderatik behera botatzen al duzue?	2	1	0

KONTSUMOA

13.	Ondo ulertzen al dituzue uraren fakturako datu guztiak?	0	1	2
14.	Azken urteetan zuen etxeko kontsumoa zer egin da?	gehitu 2	mantendu 1	gutxitu 0

Puntuaketa kontuan izanik:



Puntuaketa:

0-7 Zorionak! Zure etxeko ohitura onak ez galdu. Txalo bero bat!!!

8-13 Bide onetik zoaz, baina gehiago ere egin zenezake. Oraindik ere ur gutxiago kontsumitzea lor dezakezu. Animo!

14-20 Oraindik ere aldaketa asko egin beharrean zaude. Pentsa ezazu denon mesederako dela.

21-28 Argi dago laguntza beharra duzula. Gogoratu iturria irekitzen duzun bakoitzean ura zikitzen duzula! Eta dirua xahutzen ari zara! Informa zaitez! Ohiturak aldatzea uste baino errazagoa da.